

MERKATUAREN-SEGMENTAZIOA

Gure klienteen-xedea, ondorengo lau irizpideren arabera sailkatu da klinikaren filosofiari hobeto egokitzeko:

1. **Irizpide geografikoa:** gure proiektua Euskal Herrian finkatzen da euskal populazioaren aho-osasuna hobetzearen helburuz. Hala ere, Euskal Herriko zonalde guztiak zehaztasun guztiz ezagutzen ez ditugunez eta eskualde bakoitzeko beharrak asetzeko baliabiderik ez dugunez, gure proiektua Vitoria-Gasteizen, zehatz-mehatz Alde Zaharrean zehazten da.



2. **Irizpide sozio-ekonomikoak:** irizpide hau oso garrantzitsua da pazienteen izaera zehaztuko duen ezaugarri nagusia delako. Horretarako, hainbat sailkapen egin ditugu, gure pazienteak ahalik eta gehien hurbiltzeko gure enpresa-filosofiari:



- a. *Diru sarreraren arabera:* gutxienez DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) kobratzen duten pertsoneri eskainiko diegu zerbitzua. Hauek gainontzeko populazioak baino errekurtso gutxiago dituzte eta normalean hain errekurtso urriekin ez da aho-osasunean inbertitzen.
- b. *Adinaren arabera:* 15 urtetik gorako pazienteei zuzendutako proiektua izango da. Izan ere, 7 eta 15 urteren arteko haurren aho-osasuna PADI (haurren hartz asistentzia) zerbitzuaren esku dago. Zerbitzu horren barruan ezinbestekoak diren hainbat tratamendu sartzen dira, hala nola, txantxarren prebentzioa, betetzeak, errebisioak, e.a. Hori kontuan izanda, haurra 15 urtetik gorako aho-osasuna babesten jarraitzeko asmoarekin, gure pazienteen gutxienerako adin irizpidea 15 urteetan finkatu dugu.
- c. *Ikasketa maila edo lanbidearen arabera:* honetan ez dugu zehaztasunik ezarri, ulertzen dugulako, bakoitzak bere bizitzan zehar ez dituelako erraztasun eta baliabide berdinak jaso.

3. **Irizpide psikologikoak:** irizpide honetan, gure ideologiari hurbiltzen diren beste erakundeak hartuko ditugu kontuan. Erakunde hauek, pazienteak lortzen eta ideia berriak ematen lagunduko digute. Hauen adibideak, *Sidalava* (Arabako anti-sida komisioa da, ONG izaerarekin), *Kanpilloa* (Vitoria-Gasteizen dagoen polikiroldegia da, zeinetan hainbat ekintza antolatzen diren, eskusio-sozialaren arriskuan dauden pertsonentzat, baliabide urrikoentzat, e.a) eta *beste hartz klinikak* izango dira.



4. **Portaera irizpidea:** gure ikuspuntutik, garrantzi handia ematen diogu biztanleriak gure lana balora dezala.

Jakinaren ganean gaude, askotan doan diren zerbitzuak gutxietsi egiten direla, beti eskuragarri egongo direla dakigulako.



Ahoaren-higienearen kasua, jarrera oso konstantea izan behar da aho-osasuna hobetzeko eta pazienteetan jarrera positiboa pizteko, baldintza bakarra jarriko diegu: *gomendioak jarraituko dituztelaren konpromisoa hartu behar dute eta hori paperez sinatuko dute balore legala izateko.*

Paziente bakoitzari, behar duen tratamendua ezarriko zaio beharrezkoa ikusten dugunean, baina hau ez da nahikoa izango gaixotasun bat sendatzeko. Oso garrantzitsua da pazienteak gure jarraibideak kontuan hartzea, adibidez eskuilatze teknikak egunero ondo egitea. Horiek betetzen ez badituzten, tratamendua etengo da, pazienteak zerrendatik aterako da eta beste paziente bati emango zaio klinikara etortzeko aukera.